



SASIETA
MANKOMUNITATEA

agenda 21

Zerbitzuen gida





Sasieta Mankomunitateak bere zerbitzuak ez ezik baliabide materialak eta giza baliabideak ere berritu ditu. 2003ko irailean abiarazi ziren zerbitzu berri hauek, Goierri eta Urola Garaiko eskualdeetako hiritarrei arreta hobea emateko asmoz.

Gida honetan, eskaintzen diren zerbitzu guztiak azaltzen dira eta baita ahalik eta ondoen aprobetxatzeko modua ere.



Hiritarraren arretarako bulegoa

Erabili itzazu gure telefona eta posta elektronikoa traste zaharren bilketa-zerbitzua eskatzeko, bestelako zerbitzuen berri izateko edo iradokizunak zein kexak azaltzeko:

Orduetgia: 7:00etatik 18:00etara

Arreta-telefonoa: 943 161 555

Helbide elektronikoa:

info@sasieta.net

<http://www.sasieta.net>

Beste telefono batzuk:

Urretxuko Garbigunea:
943 723 953

Hildako abereen bilketa
(Aldundia): 943 482 348

Etxeetako hondakinen bilketa



Bilketa, batik bat, alboko kargako kamioi robotizatu batekin egiten da.



- Atera zaborrak **20:00etatik 22:30etara**.
- Poltsak **edukiontzietan** sartu behar dira beti, ez dira inoiz kanpoan utzi behar.
- Poltsak **ondo itxi** behar dira.

Kontuan izan!: Edukiontzi honetan material birziklagarriak sartzen baditugu, **EZ** dira inoiz aprobetxatuko. Material hauek zabortegira eramaten dira, eta beraz, han utzi eta betiko estaltzen dira.

Hondakin **birziklagarriak** botatzeko, erabil itzazu Gaikako Bilketarako edukiontziak.

Maiztasuna: Herri handietan (Beasain, Ordizia, Lazkao, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi) egunero biltzen da, asteko 7 egunetan, jaiegunak barne.

Gainerako udalerrietan ez da maiztasun berarekin biltzen, astean 2-5 egunen bitarte horretan biltzen baita.

Egutegi zehatza gure web orrian kontsulta dezakezu: www.sasieta.net



Garbitu eta mantentzea



Zabor-edukiontziak 15 egunetan behin garbitzen dira kamioi automatizatu batez. Gainera, bi hilabetero, eskuz ere garbitzen dira presio-pistola erabilita.

Bestalde, langile bat edukiontzien mantentze-lanetaz arduratzen da egunero, apurtutakoa konponduz, graffitiak garbituz, etab.



Etxe-abereen bilketa

Etxeko abereak (zakurrak eta katuak) biltzeko zerbitzua ere badago. Horretarako, jarri harremanetan mankomunitatearekin. Tel.: 943 161 555.

Hildako aziendak biltzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako zerbitzu berezia dago. 943 482 348.



Traste zaharren bilketa

Traste zaharren bilketa egutegia

UDALERRIA	Maistasuna
BEASAIN	Astelehenero
ORDIZIA	Asteartero
LAZKAO	Asteazkenero
ZUMARRAGA	Ostegunero
URRETXU	Ostiraleroko
LEGAZPI	Larunbatero
OLABERRIA	1. eta 3. astelehenak
IDIAZABAL	2. eta 4. astelehenak
ZALDIBIA	1. eta 3. astearteak
LEGORRETA	2. eta 4. astearteak
ATAUN	1. eta 3. asteazkenak
SEGURA	2. eta 4. asteazkenak
ZEGAMA	2. eta 4. asteazkenak
ORMAIZTEGI	1. eta 3. ostirala
ITSASONDO	2. asteartea
GAINTZA	3. asteartea
ARAMA	4. asteartea
ALTZAGA	4. asteartea
MUTILOA	2. asteazkena
ZERAIN	4. asteazkena
GABIRIA	2. ostirala
EZKIO-ITSASO	4. ostirala

Bezperan atera.
Jaiegunetan ere.

Zerbitzu honek altzariak, etxetresna elektrikoak eta ezertarako balio ez duten tresnak biltzea du xede.

- Udallerri bakoitzean **egun zehatz** batean biltzen da.
- Utzi trastea bilketa-egunaren **bezperan**.
- Ez atera trastea egutegitik kanpo.
- Jakinarazi mankomunitateari zein puntutan utzi behar dituzun trasteak.
- Utzi trasteak zabor puntuan baina **edukiontzia**ren **kontra jarri gabe**.

Kontuan izan! EZ dira obra-hondakinak jasotzen. Erabili Garbigunea edo kontratatu garraiolari espezializatua.



Traste zaharrak gaika jasotzen dira birziklatu ahal izateko:

- Egurra eta zurkiak (altzariak, etab.).
- Txatarra eta linea "zuriko" tresnak (garbigailuak, hozkailuak, etab.).
- Linea "griseko" tresnak (ordenagailuak, pantailak, etab.).
- Linea "marroiko" tresnak (telebistak, etab.).

Gainerako traste guztiak zabortegira eramaten dira.



Egun, sistema honekin, traste zaharren %60 aprobetxatzea lortzen da.



**Bai**

- Beirazko botilak
- Kontserba-poteak
- Lurrin eta kosmetikako flaskoak.

**Ez**

- Bonbillak eta fluoreszenteak
- Ispiluak
- Leihoetako beirak
- Automobiletako beirak
- Beirazko ontziteria.

Jarraibideak

Sartu beirazko ontziak hutsik, kortxo, tapoi edo antzeko hesgailurik gabe.

Gogoratu, ontziak izan arren beirazkoak EZ direla edukiontzi horian sartu behar.

Ez itzazu beirakiak gaez bota, auzokideak ez molestatzeko.

Bai

- Egunkariak eta aldizkariak
- Iragarki-paperak
- Kartoizko kaxak: galleta-kaxak, detergente-kaxak, arrautzontziak, gosariko zereal-kaxak, zapata-kaxak, etab.

**Ez**

- Brikak
- Pixohial eta paper zikinak
- Paper plastifikatuak, ezkoztatuak eta metalizatuak.

Jarraibideak

Tolestu kartoizko kaxak edukiontzira sartu aurretik.

Gogoratu paper eta kartoizko kaxak EZ direla edukiontzi horian sartu behar.

Dendetako kartoia



Bilketa-esparrua

Dendak egon ohi diren kaleak.

Hartzaileak

Dendak. Zerbitzu hau erabili behar da edukiontzi urdinak ez betetzeko eta zulotik sartzen ez diren kartoia biltzeko.



Kartoia non utzi den

Kartoia **lurrean** utzi behar da, zabor-edukiontziaren ondoan.

Kartoia nola utzi behar den

Kartoia **tolestuta**, **txukun** eta egoki pilatuta utzi behar da.

Kartoizko kaxa barruan ez de plastikorik, poliespanik edo besteinolako bitxikeriarik utzi behar, kartoien birziklapena arriskuan jar dezakete eta.



Kartoi-bilketaren egutegia

UDALERRIAK	Maiztasuna	Egunak Jaiegunetan ezik
Lazkao, Ordizia, Beasain, Zumarraga, Urretxu eta Legazpi	Egunero	Astelehenetik ostiralera
Ormaiztegi, Zaldibia, Legorreta, Idiazabal, Segura eta Zegama	Astero	Asteazkenak

Egutegi honetatik kanpo eta jaiegunetan **EZ** da kartoia bilduko. Egun horietan kartoia gorde egin beharko da edo, bestela, edukiontzi **urdinean** sartu.

Ordutegia

20:00etan atera behar da, edo goiz jota, denda ixten denean.

Debekatuta dago kartoia ordutegi honetatik kanpo ateratzea. Kasu horretan erabili edukiontzi urdina.



Bai



Ez



Plastiko eta metalezko ontziak eta brikak

Plastikozko ontziak:

- Edariak
- Olio edo ozpinarenak
- Garbigarrienak
- Kosmetika-gaiak
- Jogurt eta antzekoenak
- Plastikozko poltsak eta zorroak

Metalezko ontziak:

- Edari-poteak
- Kontserba-poteak
- Spray-poteak

Edari-brikak:

- Esne, zuku edo ardoarenak
- Tomatearenak



Bai



Ez



Ontziak ez diren plastikoak

- Jostailuak
- Bideo- eta musika-zintak
- Orraziak, hortzetako eskuilak
- Pertsianak
- Hodiak
- Fruta-kaxak
- Beirazko botilak (beira-edukiontzian)

Ontziak ez diren metalezko gauzak

- Kazolak, zartaginak
- Xigorgailuak, plantxak

Paper/kartoizko kaxak edo zorroak ezin dira brikekin nahastu. Sartu edukiontzi urdinean.

Jarraibideak

Ontziak hutsik (likidorik gabe) sartu eta garbiak ahal den neurrian.

Ez sartu ontzi bat beste baten barruan.

Tolestu brikak. Bai zure etxean bai edukiontzi horian leku gutxiago hartzen dute.

Kendu tapak plastikozko ontzietan.



Sukaldeko olioia

Bai



● Sukaldeko olioia

Ez



● Autoko olioia



Zer egiten da sukaldeko olioarekin?: Birziklatu. Biodiesela deitzen den autoentzako erregaia.

Kontua izan!: Autoko olioia Garbigunean edo Sasieta zabortegian utz dezakezu. Horretarako deitu "Hiritarraren arretarako telefonora".



Jarraibideak

Egun jakin batzuetan
biltzen da.

Bilketa merkatuan egoten den
furgoneta batekin egiten da.

Gorde olioia
flaskoetan.

Asko dagoenean (jaketxeak, jantokiak,
elkarteak) deitu mankomunitatera.

Sukaldeko olioaren bilketa egutegia

UDALERRIA	Maiztasuna	Ordutegia	Lekua
LAZKAO	Hileko lehen astelehena	9:00-13:00	Merkatuko plazan
BEASAIN	Hileko lehen asteartea	9:00-13:00	Merkatuko plazan
ORMAIZTEGI	Hileko bigarren asteartea	9:00-12:00	Merkatuko plazan
LEGORRETA	Hileko bigarren asteartea	9:00-12:00	Merkatuko plazan
ORDIZIA	Hileko lehen asteazkena	9:00-13:00	Merkatuko plazan
URRETXU	Hileko lehen osteguna	9:00-13:00	Merkatuko plazan
ZEGAMA	Hileko azken osteguna	9:00-12:00	Merkatuko plazan
LEGAZPI	Hileko lehen ostirala	9:00-13:00	Udaletxeko plazan
ZUMARRAGA	Hileko bigarren larunbata	9:00-13:00	Merkatuko plazan
MAXI-EROSKI Ordizia	Hileko lehen larunbata	10:00-14:00	Aparkalekuan
CARREFOUR Olaberria	Hileko lehen larunbata	16:00-20:00	Aparkalekuan
SEGURA, ZERAIN, MUTILOA, IDIAZABAL	Hileko azken osteguna	Eguerdian	Furgoneta ibiltaria
ITSASONDO, ZALDIBIA	Hileko lehen asteazkena	Eguerdian	Furgoneta ibiltaria
ATAUN S. MARTIN eta S. GREGORIO	Hileko lehen astelehena	Eguerdian	Furgoneta ibiltaria



Pilak / Poltsikoko telefonoak



Bai

- Pila alkalinoak eta gatzezkoak
- Botoi erako pilak
- Litiozko pilak
- Ni-cd akumuladoreak
- Poltsikoko telefonoak eta bateriak



Ez

- Telefono-kargatzaileak
- Urrutiko aginte-tresnak



Jarraibideak

Pila guztiak sar daitezke.

Ez sartu edukiontzia-aren zuloa trabatu dezaketen gauzak.



Bai

- **Janzteko arropak, era guztietakoak:**
 - kalekoak, kirol egitekoak, bainukoak, etab.
 - Haur zein helduen arropak
 - Barruko nahiz gaineko arropak
- **Etxeko arropak oro har:** maindireak, mantak, koltxak, gortinak, toailak, etab.
- **Oinetakoak:** egoera onean daudenak bakarrik.
- **Osagarriak:** gerrikoak, gorbatak, galtza-uhalak, lepokoak, mukizapiak, poltsak, karterak, gerriko poltsak, etab.



Ez



- Ehungintzako ebakitze-hondakinak
- Industrian garbitasun-lanetan erabilitako trapuak
- Zoru-garbigailuak, hautsa kentzeko trapuak, baietak, etab.
- Alfonbrak eta moketak.



Jarraibideak

OSO GARRANTZITSUA: Arropa poltsa itxietan sartuta atera.

Arropa oso zaharrak ere biltzen dira.

Arropa Karitatera bidaltzen da.

Urretxuko Garbigunea

Hartzaileak

Biztanleak, gremioak eta tailer txikiak.

Onartzen diren hondakinak eta nora ematen diren



Birziklatzera

- Lorategietako eta inausketako hondakinak
- Egurrak (paletak, altzariak, kutxak, oholak, etab.)
- Plastikoko birziklagarriak (polietilenoazko bidioiak, film motako plastikoa)
- Papera eta kartoia
- Burdinkiak eta txatarrak
- Gurpilak
- Erabilitako arropa
- Sukaldeko olioak
- Beirazko ontziak
- Aparatu elektrikoak (ordenagailuak, telebistak...)
- Pilak



Zabortejira

- Obra-hondakinak
- Birziklatzen ez diren plastikoak (pertsianak, jostailuak...)
- Etxeko gauzak (koltxoiak, sofak, somierrak...)



Kudeaketa berezia

- Autoetan erabilitako olioak
- Autoko bateriak
- Etxeetako hondakin arriskutsuak: pinturak, bernizak, kolak, disolbatzaileak, fluoreszenteak eta lanparak, aerosolak, fitosanitarioak...

Ibilgailuen pisumuga

3.500 Kg baino gutxiago duten ibilgailuei soilik onartuko zaie deskarga egitea.

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera

Goizez, **9:00**etatik **12:30**era

Arratsaldez, **16:00**etatik **19:00**etara

Larunbatetan

Goizez bakarrik, **9:00**etatik **13:30**era

Jaiegunetan

Itxita

Abuztuan

Goizez bakarrik, **9:00**etatik **13:30**era

Telefonoa 943 723 953



Kokapena

GI-632 errepideko 14,4 kilometroa



Bilketa-egutegia

Industrialde bakoitzari dagokiona
web orrian kontsulta daiteke
www.sasieta.net



Zabor bilketa

Bere izakeraz eta osaeraz
hiri-hondakinei bateragarriak diren
hondakinak bakarrik biltzen dira
(hondakin organikoak, bulegoen
garbitasunekoak, edari-makinetaoak,
laneko arropa zaharrak, etab.)

KONTUAN IZAN! Ez dira
hiri-hondakintzat (zaborrak) onartzen
eta beraz bilketa-zerbitzuak **ez ditu**
ondoko hondakin hauek **biduko**:

- **Eskonbroak** eta obretan eta konpontze-lanetan sortutako hondakinak
- **Industria-hondakinak** (ekoizpeneko hondakinak, gurpilak, bidoiak, etab.)
- **Hondakin arriskutsuak** (olioak, taladrinak, disolbatzaileak, irazkiak, etab.)

Hauen kudeaketa bakoitzaren bitartekoz edo hondakin-garraiolarien bidez egin beharko da.



Kartoi bilketa

Kartoizko kaxak txukun eta egoki pilatuta utzi behar dira eta, ahal bada, **tolestuta**, dauden zabor-edukiontzien ondoan (ez dira barruan sartu behar). Kartoiak ez ezik **bulegoetako papera** ere utz daiteke. Papera poltsetan atera behar da, kanpoaldean "*pape!*" edo "*papera*" idatzita.



Egur-bilketa

Utzi zurkiak **lurrean, zabor-edukiontzien ondoan**. Egurrezko **paletak** txukun utzi behar dira, bata bestearen gainean **pilatuta**. Neurri handiena: palet batena.

KONTUAN IZAN! Atzeratzen dituzunak zurkiak, paletak, kutxak, oholak, etab. izango dira, eta horiek ez dute birziklatzea eragotz dezaketen hondarrik izango (plastikoak, beirak, metalak, etab.).



Hondakin arriskutsuak

Badago Gipuzkoako Bazkundearekin hitzarmena urtean 10 Tn hondakin arriskutsu baino gutxiago ekoizten duten enprezentzat.

Informazioa:

- Sasieta Mankomunitatea: 943 161 555
- Gipuzkoako Bazkunea: 943 272 100, Hondakinen Saila

Etxeko hondakinak



Traste zaharrak



Beira



Papera



Den...

Residuos domiciliarios

Trastos viejos

Vidrio

Papel

Car...

Zurezko altzariak
Muebles de madera

Ordenagailuak, TB, Etxetresna elektrikoak
Ordenadores, TV, Electrodomésticos

Z A B O R T E G I A



V E R T E D E R O

%75a zabortegira
75% al vertedero



%25a birziklatzera
25% a reciclar

detako kartoia



Ehunak



Ontziak



Pilak



Sukaldeko olioia



ón comercios

Textiles

Envases

Pilas

Aceite cocina

Hondakin-biltegi iraunkorra



Depósito permanente de residuos

BIRZIKLAKETA



RECICLAJE

KONTUAN IZAN! Zabor-erakargaritara botatzen diren hondakinak zabortegira eramaten dira, eta bertan gelditzen dira estalita betiko, hauei inolako probetxurik atera gabe.

ATENCIÓN! Aquellos residuos que aun siendo reciclables se depositan en el contenedor de basura son transportados al vertedero para su cubrición permanente, perdiendo así su aprovechamiento.